OIARTZUNGO
UDALA

**Espedientearen kodea:** 2026ZZ020008
**Espedientearen gaia**: 2026 urtean Xanisteban jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak.
**Titularra**: OIARTZUNGO UDALA

---

# EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

**Oihane Mallagaray Revilla, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:**

**ZIURTATZEN DUT**: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026/07/28an, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

**"2026 URTEAN XANISTEBAN JAIETAN EKITALDIAK ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZAK BANATZEA**

2026/04/28an Udal Tokiko Batzarrak "2026 urtean Xanistebanak jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak" onartu zituen.

Horretarako, 60.000 € ko izendapena egin zuen Udalak 2026 urteko 1 0331.481.338.00.10.2026 zenbakidun partidaren kontura (A-868-2026).

Dirulaguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2025-2027rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen araudia.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea maiatzak 1etik 31a arte ireki zen.

Epearen barruan, 30 kultur ekintzetarako eskaerak aurkeztu dira. Ekintza hauek guztiak aurrera eraman ahal izateko 61.446 € ko dirulaguntza eskaerak aurkeztu dira.

Dirulaguntza hau arautzen duten oinarri espezifikoen 9. artikuluan ezartzen den bezala, eskabideak Kultur arloko teknikariak aztertuko ditu, eta balorazio-txostena egingo du. Txosten hori Herritarren Batzordeari helaraziko zaio, bere iritzia eman eta behin-behineko proposamena egin dezan. Ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak ebazpen-proposamena luzatuko du.

Honenbestez, Herritarrak Informazio Batzordeak gai honi buruz egindako proposamena ikusirik eta beronekin adostasunean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa

**ERABAKI DU**:

Lehena.- Prozedura: Dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskaera orrian eta formularioetan behar bezala jasota eta egiaztatuta dauden datuak hartu dira kontuan.

Dirulaguntzak kalkulatzeko, lehenik, puntuaren balio unitarioa atera da; horretarako, dirulaguntzaren lerro honen aurrekontua onartutako eskaeren puntuen batura artean zatitu da. Jarraian, elkarte bakoitzari dagokion puntu kopurua puntuaren balio unitarioaz biderkatu da.

Eskaeretan adierazitako informazioan oinarrituta beraz, erantsitako taulan jasotako puntuazioa lortu du elkarte bakoitzak, eta ondorioz, adierazitako dirulaguntzak ematea proposatzen da.

ESKU66cc3dbc-ce41-46f8-8045-44f96aee0c2b

OIARTZUNGO UDALA

Bigarrena.- Epearen barruan, aurkeztutako eskaerak aztertuta, 2026 urtean Xanistebanak jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak herriko elkarteei banatzeko eta ordaintzeko proposamena, erantsitako taulan txertatzen dena, onartzea, guztira 59.750,29 € ko dirulaguntzak onartuz Oiartzungo Udalaren 2026 urteko aurrekontuko 1 0331.481.338.00.10.2026 (A-868-2026) zenbakidun partidaren kontura.

Hirugarrena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (%80ari dagokiona, hau da 47.800,23 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, 11.950,06 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

---

XANISTEBANAK 2026: DIRULAGUNTZAK

| ELKARTEA: EKITALDIA | PUNTUAK GUZTIRA | ESKATUTA LAGUNTZA | LAGUNTZA | ORAIN ORDAINDU % 80a |
|---|---|---|---|---|
| MARTZELINA BERTSO ELKARTEA: BERTSO SAIOAK | 83 | 3.431,00 € | 3.431,00 € | 2.744,80 € |
| BIYURRIENEA GAZTEEN ELKARTEA: ELEKTROTXARANGA ETA MOZORRO FESTA | 82 | 2.060,00 € | 2.060,00 € | 1.648,00 € |
| ELIZALDEKOAK LHI GURASOEN ELKARTEA: HAURRENTZAT EKITALDIAK | 71 | 1.776,00 € | 1.776,00 € | 1.420,80 € |
| ITURRI BERRI ELKARTEA HERRI KIROLAK | 65 | 2.500,00 € | 2.500,00 € | 2.000,00 € |
| ARTASO ELKARTEA: SOKATIRA TXAPELKETA | 70 | 3.610,00 € | 3.380,00 € | 2.704,00 € |
| HAURTZARO IKASTOLA: PETRA LEKUONA EGOITZAN DANTZA | 71 | 550,00 € | 550,00 € | 440,00 € |
| HAURTZARO IKASTOLA: DANTZA SAIOA KIROLDEGIAN | 82 | 4.000,00 € | 3.959,43 € | 3.167,54 € |
| HAURTZARO IKASTOLA: XAKE TXAPELKETA | 59 | 450,00 € | 450,00 € | 360,00 € |
| HAURTZARO IKASTOLA: TXOKO JOLASAK | 59 | 655,00 € | 655,00 € | 524,00 € |
| HAURTZARO IKASTOLA: DISKO BERRI FESTA | 65 | 1.200,00 € | 1.200,00 € | 960,00 € |
| HAURTZARO IKASTOLA: JOLAS PARKEA | 82 | 4.180,00 € | 3.959,43 € | 3.167,54 € |
| HAURTZARO IKASTOLA: TXOKOLATADA | 68 | 450,00 € | 450,00 € | 360,00 € |
| GIRIZIA ELKARTEA: PALA TXAPELKETA | 55 | 1.225,00 € | 1.225,00 € | 980,00 € |
| AIA ELKARTEA: GOSARITXOW ETA UR PUZGARRIAK | 98 | 3.689,00 € | 3.689,00 € | 2.951,20 € |

ESKU66cc3dbc-ce41-46f8-8045-44f96aee0c2b

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ALDEGUNA ELKARTEA: DANTZA TXAPELKETA | 58 | 2.450,00 € | 2.450,00 € | 1.960,00 € |
| SOINUENEA FUNDAZIOA: KALEBUELTAK ETA ERRALDOI TXIKIAK | 61 | 2.800,00 € | 2.800,00 € | 2.240,00 € |
| IBARGAIN ELKARTEA: SAGARDO LEHIAKETA | 88 | 2.360,00 € | 2.360,00 € | 1.888,00 € |
| OAFE FEMINISTEN ELKARTEA: EKITALDI FEMINISTAK | 99 | 850,00 € | 850,00 € | 680,00 € |
| AUZOKALTE ELKARTEA: DANBORRADA | 41 | 1.500,00 € | 1.500,00 € | 1.200,00 € |
| AUZOKALTE ELKARTEA: ZEZENAK | 30 | 1.100,00 € | 1.100,00 € | 880,00 € |
| OIARPE ELKARTEA: PILOTA TXAPELKETA | 46 | 2.500,00 € | 2.221,14 € | 1.776,91 € |
| OIARPE ELKARTEA: PILOTA JAIALDIA | 45 | 1.550,00 € | 1.550,00 € | 1.240,00 € |
| OIARPE ELKARTEA: TRUK TXAPELKETA | 32 | 250,00 € | 250,00 € | 200,00 € |
| OTXE ELKARTEA: TXIRRINDULARI SARIA | 85 | 4.000,00 € | 4.000,00 € | 3.200,00 € |
| IDIYAZALEAK ELKARTEA: IDI DEMA | 82 | 4.400,00 € | 3.959,43 € | 3.167,54 € |
| GAZTE IZANAK ELKARTEA: XANISTEBANETAKO JOKOAK | 64 | 1.100,00 € | 1.100,00 € | 880,00 € |
| LARTAUN ABESBATZA: KANTU KANTARI | 67 | 650,00 € | 650,00 € | 520,00 € |
| MUNANIER ELKARTEA: DJ EMANALDIAK | 52 | 1.310,00 € | 1.310,00 € | 1.048,00 € |
| AMILKA ERRALDOIEN ELKARTEA: ERRALDOIEN TOPAKETA ETA KALEBUELTAK | 73 | 4.010,00 € | 3.524,86 € | 2.819,89 € |
| MINDARA ELKARTEA: PILOTA EGOKITUA | 46 | 840,00 € | 840,00 € | 672,00 € |
| GUZTIRA: | 1979 | 61.446,00 € | 59.750,29 € | 47.800,23 € |

"

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikuluaren arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Idazkariak
Oihane Mallagaray Revilla

O.E.
Alkateak
Joana Mendiboure

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2026ZZ020008-Ebazpena TGB/Ebazpena TGB (OIARTZUNGO UDALA) |
| --- | --- |

**Digitalki sinatua:**

**Oihane Mallagaray Revilla**
**Idazkaria**
**Data:** 2026/07/28 10:35:48

**Digitalki sinatua:**

**Joana Mendiboure**
**Alkatea**
**Data:** 2026/07/28 10:39:52